

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2020 Foru Dekretua, urtarrilaren 21ekoa. Aldatzea Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretua, Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sortu zuena, bide elektronikoz egiten diren jakinarazpenen arautzeari dagokionez

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sortu zen.

Haren bigarren xedapen gehigarrian, Arabako Foru Aldundian jakinarazpena bitarteko elektronikoz egiteko modua zehazten da. Beharrezkoa da hura eguneratzea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako jakinarazpen araubidera moldatzeko, haren 14. artikuluan arautzen baita administrazio publikoekin harremanak bide elektronikoz izateko eskubidea eta eginbeharra, eta 41. artikuluan ezartzen baita jakinarazpenak egiteko baldintza orokorrak.

Lege testu horren 43. artikuluan xedatzen da ezen, administrazio bakoitzak erabakitzen duenaren arabera, bide elektronikoz egiten diren jakinarazpenak administrazioaren egoitza elektronikoa agertuz, gaitutako helbide elektronikoa bakarraren bidez edo bi sistema horien bitartez egingo direla, eta bertara jo beharko dutela, haiek kudeatzeko, harremanak bide elektronikoz izatera behartuta dauden subjektuek eta, behartuta ez egon arren, jakinarazpenak bide elektronikoz egitea nahi dutela adierazi dutenek. Beharturik ez dauden eta jakinarazpenak bide elektronikoz egitea nahi dutela adierazi ez duten subjektuei paperez egingo zaizkie jakinarazpenak, baina jakinarazpen elektronikoa ere eskura edukitzen jarraituko dute.

Gauzak horrela, Arabako Foru Aldundiak erabaki du bere egoitza elektronikoa jakinarazpen elektronikoaerako bere plataforma ezartzea, bat datorrena 39/2015 Lege horretako eta hura garatzen duten arauetako eskakizunekin eta beste araudi sektorial batzuetan aurreikusitako berezitasunekin, era berezian zergapekoari jakinarazteko araubidetik eratorritakoekin.

Hala ere, irekita uzten da jakinarazpen elektronikoaerako beste plataforma batzuk erabiltzeko aukera, gaitutako helbide elektronikoa bakarria barne delarik, Arabako Foru Aldundiak erabiltzen dituen hirugarrenen aplikazio informatikoekin loturik baldin badaude, edo arauen bat hala agintzen badu.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluan eztabaidatu ondoren gaur bertan egindako bilkuran,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Foru aldundi honen egoitza elektronikoaen sorkuntza onetsi zuen Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria aldatzea. Honela idatzita egongo da aurrerantzean:

“Bigarren xedapen gehigarria. Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpena.

a) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, jakinarazpen elektronikoa, oro har, Arabako Foru

Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egingo dira. Hartzailleek eskuratu ahal izango dituzte aipatutako egoitza elektronikoaren "Nire jakinarazpenak" delako atalean.

Salbuespen moduan, Arabako Foru Aldundiak, prozedura jakinetarako, jakinarazpen elektronikoetarako beste plataforma batzuk erabili ahal izango ditu, gaitutako helbide elektroniko bakarra barne delarik. Ahalmena ematen zaio Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari ebazpen egokia hartzeko, eta horren berri emango da egoitza elektronikoan.

b) Arabako Foru Aldundiaren jakinarazpen elektronikoetarako plataformak ziurtatuko du jakinarazpenak egiteko 39/2015 Legean eta hura garatzen duten arauetan ezarritako baldintza orokorrak betetzea, baita aplikagarria den araudi sektorialetik eratorritako berezitasun guztiak ere.

c) Jakinarazpen elektronikoak haien hartzailleek eskuratu ahal izango dituzte, edo, hala dago kienean, beraiek gaitutako pertsonak.

d) Jakinarazpen elektronikoak eskura jartzearekin batera, abisua igorriko zaio interesa duen pertsonari, plataforman eskaintzen diren datuak berak aukeratutako bidetik.

Gainera, jakinarazpen elektroniko horiek eta dagozkien abisuak kontsultatu ahal izango dira jakinarazpen elektronikoetarako beste plataforma batzuetan ere, une bakoitzean egoitza elektronikoan argitara ematen diren informazio eta baldintzen arabera.

e) Indarrean dagoen araudiak jakinarazpenak bide elektronikoz jasotzera behartzen ez dituen pertsonak bide elektroniko horiek aukeratu eta paperezko jakinarazpena alde batera uztea aukeratu ahal izango dute, "Nire jakinarazpenak" delako atalean erabilgarri dagoen harpidetza zerbitzu baten bidez.

f) Gorabehera tekniko batengatik ezinezkoa izan bada plataformak ohi bezala funtzionatzea, Arabako Foru Aldundiak erabaki ahal izango du epemugara heldu ez diren jakinarazpenen epea luzatzea, gertatutako gorabehera teknikoa eta luzapenaren baldintzak argitara emanez egoitza elektronikoan.

g) Xedapen hau ordezkio eran, eta bateragarria den heinean bakarrik, aplikatuko zaio Arabako Foru Aldundian Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen gaian eskumena duen Sailak bide elektronikoz egiten dituen jakinarazpenetarako ezarritako berariazko arauketa berekiari, zergen eta zerga prozeduren aplikazioaren inguruan, baita ere jakinarazpenak bide elektroniko horietatik jasotzera beharturik dauden pertsona eta entitateak zehazteari buruz.

Bigarrena. Foru dekretu hau 2020ko ekainaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Zerbitzu Orokorren jarduneko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA